

“ARLABAN-3” ESTAZIO METEOROLOGIKOA INSTALATZEKO/DESINSTALATZEKO PROIEKTUARI ALEGAZIOAK

ALEGACIONES AL PROYECTO DE INSTALACIÓN/DESINSTALACIÓN DE LA ESTACIÓN METEOROLÓGICA “ARLABAN-3”

<p>(Izen-Abizenak) _____, honako NA zenbakia duena _____ eta honako helbidea jakinarazpenetarako: _____, zuzenbidean bidezkoen den moduan, DIOT:</p> <p>2021eko apirilaren 12ko Arabako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean (39. zk.) “ARLABAN-3 estazio meteorologikoa instalatzeko/desinstalatzeko proiektua” dela-eta alegazioak egiteko izapidea ikusita, jendaurreko aldian aztertu ondoren, idazki honen bidez, emandako legezko epearen barruan, administrazio-prozeduran agertu eta jarraian emandako egintzan,</p> <p>ALEGAZIO hauek egiten ditut:</p> <p>Alegazio horien helburua da ARABAKO FORU ALDUNDIARI eskatzea “ARLABAN-3” izeneko estazio meteorologikoa instalatzeko/desinstalatzeko proiektua gauzatzeko interes publikokotzat izendatzeko administrazio-prozedura geldiaraz dezala.</p> <p>Eusko Jaurlaritzak 2002an onartu zuen Energia Eolikaren Lurralde Plan Sektoriala (LPS), 1997ko martxoaren 20ko osoko bilkuran Eusko Legebiltzarrak horrela aginduta. Planaren helburua da horrelako instalazioak ezartzeko kokaleku egokienak antolatu eta aukeratzeko.</p> <p>2009ko ekainaren 28an, aurreikusitako kokalekuei buruzko adostasunik eza eta LPS indarrean dagoen ingurumen-araudi berrira egokitzeko beharra kontuan hartuta, Eusko Legebiltzarrak berak LPSa eguneratzeko eskatu zion Gobernuari, eta orain arte aurreikusitako zentral eolikoek eraikuntza geldiarazi zuen.</p> <p>Gaur egun, EAEko Energia Jasangarritasunari buruzko otsailaren 21eko 4/2019 Legearen laugarren xedapen gehigarria betez, Eusko Jaurlaritza Energia Berriztagarrien Lurralde Plan Sektoriala egiten ari da, eta, aldi berean, Araban sei zentral eoliko ezartzeko eskaera izapidetzen</p>	<p>(Nombre Apellidos) _____, con documento nacional de identidad nº _____, con domicilio a efecto de notificaciones en _____, como mejor proceda en derecho DIGO</p> <p>Que visto el Boletín Oficial del Territorio Histórico de Álava, número 39, del 12 de abril de 2021, el trámite para realizar alegaciones al “Proyecto de instalación/desinstalación de la estación meteorológica ARLABAN-3” y habiéndolo examinado en periodo de información pública, por medio del presente escrito dentro del plazo legal concedido, me persono en el procedimiento administrativo y acto seguido procedo a realizar las</p> <p>siguientes ALEGACIONES:</p> <p>Estas alegaciones tienen como objetivo solicitar a la DIPUTACIÓN FORAL DE ÁLAVA, la paralización del procedimiento administrativo para nombrar de interés público la ejecución del proyecto de instalación/desinstalación de la estación meteorológica denominada “ARLABAN-3”.</p> <p>El Gobierno Vasco aprobó en el año 2002, por mandato del Parlamento Vasco en el pleno celebrado el 20 de marzo de 1997, el Plan Territorial Sectorial (PTS) de la Energía Eólica con el fin de ordenar y seleccionar los emplazamientos idóneos para la implantación de este tipo de instalaciones.</p> <p>El 28 de junio de 2009, teniendo en cuenta la falta de consenso sobre los emplazamientos previstos y la necesidad de adaptar el PTS a la nueva normativa ambiental vigente, el propio Parlamento Vasco instó al Gobierno a elaborar una actualización del PTS paralizando la construcción de las centrales eólicas proyectadas hasta el momento.</p> <p>En la actualidad, en cumplimiento de la disposición adicional cuarta de la Ley 4/2019, de 21 de febrero, de sostenibilidad energética de la CAPV, el Gobierno Vasco está elaborando un Plan Territorial Sectorial de Energías Renovables a la vez que tramita la solicitud de implantación seis centrales</p>
--	---

ari da, besteak beste, Aramaion aztertzen ari garena.

Gerta liteke, beraz, zentral horien eraikuntzan atzera bueltarik gabe aurrera egitea, eta, era berean, Energia Berriztagarrien Lurralde Plan Sektorialak kokaleku horietako edozein ez dela egokia erabakitzea, ingurumenean duen eragin onartezina dela eta.

Bistan da klima-aldaketaren aurkako borrokak energia-sistema “descarbonizatzea” eskatzen duela, eta, bide horretan, arreta berezia jarri behar zaio lurraldeari eta biodibertsitateari. Energia-trantsizioa eta biodibertsitatea binomio bereiztezin baten parte izan behar dira, eta, dokumentu honetan argudiatzen den bezala, horrelako zentral eoliko bat egiteak ondorio negatibo atzeraezinak eragingo lituzke Arlaban eta Jarindo mendien ingurune naturalean, baita haien biodibertsitatean ere.

Ingurumenaren aldetik arduratsua den kudeaketa kontuan hartuta, beraz, “Arlaban-3” estazio meteorologikoa instalatzeko/desinstalatzeko proiektua ez gauzatea eta zentral eoliko hori eraikitzeko leku hori baztertzea erabaki beharko litzateke.

Ondorioz, **ESKATZEN DIOT Arabako Foru Aldundiari administrazio-prozedura geldiaraz dezala, “Arlaban-3” izeneko estazio meteorologikoa instalatzeko/desinstalatzeko proiektua gauzatzeko eremua interes publikokotzat izendatzeko**; izan ere, Eusko Jaurlaritzak bultzatutako proiektuari zuzenean lotuta dago, zentral eoliko handi bat eraikitzeko, eta, dokumentu honetan argudiatu den bezala, LPSk ez dagoelako indarrean. Gainera, eguneratze-prozesuan murgilduta dagoelako, eta Arlaban eta Jarindo mendien ingurune naturalean eta bioaniztasunean eragin negatibo atzeraezinak eragin ditzakelako. Ondorio atzeraezinak, estazio meteorologikoa instalatze/desinstalatze hutsarekin gerta daitezkeenak, hain zuzen.

eólicas en territorio alavés, entre otros, el que nos ocupa en Aramaio.

Se podría dar, por tanto, la situación de que se avance irreversiblemente en la construcción de estas centrales y, a su vez, que el PTS de Energías Renovables determine que cualquiera de estos emplazamientos no sean los idóneos por su inasumible afección ambiental.

Es evidente que la lucha contra el cambio climático exige una “descarbonización” del sistema energético y, en ese camino, es preciso prestar especial atención al respeto al territorio y a la biodiversidad. La transición energética y la biodiversidad deben formar parte de un binomio indisoluble y, tal y como se argumenta a lo largo de este documento, la ejecución de una central eólica de esas características provocaría unas afecciones negativas irreversibles en el entorno natural de los Montes de Arlaban y Jarindo, así como en su biodiversidad.

Atendiendo a una gestión ambientalmente responsable se debería, por tanto, optar por la no ejecución del proyecto de instalación/desinstalación de la estación meteorológica denominada “Arlaban-3” y descartar este emplazamiento para la construcción de esta central eólica.

Por lo que, **SOLICITO a la Diputación Foral de Álava la paralización del procedimiento administrativo para nombrar de interés público la zona de ejecución del proyecto de instalación/desinstalación de la estación meteorológica denominada “Arlaban-3”** al estar directamente vinculado al proyecto impulsado por el Gobierno Vasco para la construcción de una gran central eólica que, tal y como se ha argumentado en este documento, al no estar el PTS en vigor y encontrarse, además, inmerso en un proceso de actualización, podría provocar unas afecciones negativas irreversibles en el entorno natural de los Montes de Arlaban y Jarindo, así como en su biodiversidad. Afecciones irreversibles, que se pueden producir ya, con la sola instalación/desinstalación de la estación meteorológica en cuestión.

Sinadura:

Firma: